IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA, PASAIAKO UDALAREN SANEAMENDU-SISTEMA KUDEATZEKO PLAN INTEGRALA IDAZTEA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIAN

PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LA REDACCIÓN DEL PLAN INTEGRAL DE GESTIÓN DEL SISTEMA DE SANEAMIENTO MUNICIPAL DE PASAIA

I. KONTRATUAREN EDUKIA	I. CONTENIDO DEL CONTRATO
1.- KONTRATUAREN XEDEA	**1.- OBJETO DEL CONTRATO**
Kontratuaren xedea da Pasaiako Udaleko Saneamendu Sistema Kudeatzeko Plan Integrala (aurrerantzean, SSKPI) idazteko zerbitzua, sarea kudeatu eta optimizatu ahal izateko. Ura bizitzeko eta planetako ekosistemak mantentzeko oinarrizko eta funtsezko baliabideetako bat da. Testuinguru horretan, uraren garrantzi estrategikoaz jabetuta, eta klima-aldaketaren ondorio kaltegarriei eman beharreko erantzuna indartzeko premiaren aurrean, Uraren zikloa digitalizatzeko Ekonomia Berreskuratu eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoa (EBEPE) sortu zen. EBEPE horrek sektorearen ahalmen ekonomikoa optimizatzen duten eta sisteman detektatutako eraginkortasunik ezak amaitzen dituzten neurri eraldatzaile eta bideratzaileen multzo bat barne hartzen du. Horietako asko digitalizazioaren bidez ezabatuko dira. Hori horrela, irailaren 23ko TED/934/2022 Aginduaren bidez (2022ko irailaren 30eko BOE), honako hauek onartu ziren: uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuak egiteko lehia bidezko laguntzak emateko oinarri arautzaileak, eta uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuen lehiarako	El objeto del contrato lo constituye el servicio de redacción del Plan Integral de Gestión del Sistema de Saneamiento (en adelante, PIGSS) municipal de Pasaia de manera que permita la gestión y optimización de la red. El agua es uno de los recursos básicos y esenciales para la vida, así como para el mantenimiento de los ecosistemas del planeta. En este contexto, consciente de la importancia estratégica del agua y ante la necesidad de reforzar la respuesta ante los efectos adversos del cambio climático, se creó el Proyecto Estratégico para la Recuperación y la Transformación Económica (PERTE) Digitalización del ciclo del agua. Este PERTE incluye un conjunto de medidas transformadoras y facilitadoras que optimizan el potencial económico del sector y ponen fin a las ineficiencias detectadas en el sistema, que se eliminarán muchas de ellas a través de la digitalización. Siendo esto así, por Orden TED/934/2022, de 23 de septiembre, publicada en el BOE el 30 de septiembre de 2022, se aprobaron las bases reguladoras de la concesión de ayudas por concurrencia competitiva para la elaboración de proyectos de mejora de la eficiencia del ciclo urbano del agua y la primera convocatoria de

dirulaguntzen lehen deialdia (2022) (EBEPE uraren zikloaren digitalizazioa), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. 2023ko azaroaren 15ean, dirulaguntzak emateko behin betiko ebazpena argitaratu zen, zeinaren bidez erabaki baitzen DIGURBE proiektua gauzatzeko laguntza ematea Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. elkarteari eta Hernani, Lasarte-Oria, Oiartzun, Lezo, Astigarraga, Usurbil, Pasaia, Errenteria eta Urnietako udalei.	subvenciones (2022) en concurrencia competitiva de proyectos de mejora de la eficiencia del ciclo urbano del agua (PERTE digitalización del ciclo del agua), en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia. Y con fecha 15 de noviembre de 2023 se publicó resolución definitiva de concesión de subvenciones, mediante la cual se acordaba otorgar a la agrupación Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. (AGASA) y Ayuntamientos de Hernani, Lasarte-Oria, Oiartzun, Lezo, Astigarraga, Usurbil, Pasaia, Errenteria y Urnieta la concesión de la ayuda para llevar a cabo el proyecto DIGURBE presentado a tal efecto.
Pasaiako Udalak, DIGURBE proiektu horren parte izanik, Pasaiako ur-zikloan zehar uraren erabileren ezagutza hobetu nahi du, ur-baliabideen kudeaketa integratua finkatuz eta uraren erabileran efizientzia eta eraginkortasuna hobetuz.	El Ayuntamiento de Pasaia, siendo parte de dicho proyecto DIGURBE, pretende mejorar el conocimiento de los usos del agua a lo largo del ciclo del agua en Pasaia, consolidando una gestión integrada de sus recursos hídricos y mejorando la eficiencia y eficacia en el uso del agua.
Ildo horretan, baldintza teknikoen agiriak DIGURBE proiektuaren barruan jasotako ekintza bat du ardatz, zehazki, S1-A2-01 jarduketa, Pasaiako udal-saneamenduko sistema kudeatzeko plan integrala idaztea, Europar Batasunak finantzatutako NextGenerationEU Berroneratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.	En este sentido, el pliego de prescripciones técnicas se centra en una acción recogida dentro del proyecto DIGURBE, concretamente la actuación *n.º S1-A2-01 Redacción del Plan Integral de Gestión del Sistema de Saneamiento municipal de Pasaia,* en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, financiado por la Unión Europea – NextGenerationEU.
Egiteko dagoen kontratua zerbitzu-kontratu gisa sailkatzen da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 17. artikuluarekin bat etorriz.	El contrato a realizar se califica como contrato de servicios, de conformidad con el artículo 17 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
2017Ko SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, kontratu honen esleipen-organoa Alkatetza da.	De conformidad con la Disposición Adicional Segunda LCSP 2017, para el presente contrato el órgano de contratación es la Alcaldía.
2017Ko SPKLren 156. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da.	De conformidad con lo dispuesto en el artículo 156 LCSP 2017, el contrato se adjudicará por procedimiento abierto.
CPV kodeak:	Códigos CPV:
71356200 Laguntza Teknikoko Zerbitzuak	71356200 Servicios de Asistencia Técnica
Kontratu hau ez da sortatan banatu, eta horren justifikazioa espedientean jasota dago.	El presente contrato no se divide en lotes. La justificación de la no división en lotes se encuentra en el expediente.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

2.- EPEA	**2.- PLAZO**
Zerbitzu honen iraupena kontratua formalizatzen den unetik hasiko da, eta **3 hilabeteko** epea izango da.	La duración de este servicio comenzará a contarse a partir de la formalización del contrato y será **3 meses.**
Lizitatzaileek aipatutako epea hobetzeko aukera izango dute; eta eskaintza horiek agiri honen 16. klausulan ezarritakoarekin bat baloratuko dira.	Los licitadores tendrán la posibilidad de mejorar el citado plazo, valorándose las ofertas presentadas de conformidad con lo establecido en la cláusula 16ª del presente pliego.
Kontratista berandutzan sartutzat joko da aipatutako epea igarotzean, eta horretarako Administrazioaren aldez aurreko jakinarazpena ez da beharrezkoa izango	El contratista se entenderá incurso en mora por el transcurso del plazo citado, no siendo necesaria intimación previa por parte de la Administración.
3.- KONTRATUAREN AURREKONTUA	**3.- PRESUPUESTO DEL CONTRATO**
3.1. LIZITAZIO OINARRIZKO AURREKONTUA	3.1. PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN
Lizitazio oinarrizko aurrekontua 26.973,9 eurokoa da (22.292,48 euro gehi 4.681,42 euro BEZ).	El presupuesto base de licitación es de 26.973,9 (22.292,48 euros más 4.681,42 euros correspondientes al IVA).
Lizitatzaileek aipatutako prezioa hobetu ahal izango dute, eta aurkeztutako eskaintzak agiri honetako 16. klausulan ezarritakoaren arabera baloratuko dira.	Los licitadores tendrán la posibilidad de mejorar el citado precio, valorándose las ofertas presentadas de conformidad con lo establecido en la cláusula 16ª del presente pliego.
Eskaintza guztiek kontratuaren prezio garbia eta, hala badagokio, BEZari dagokion zenbatekoa bereizita adierazi beharko dute.	Todas las ofertas deberán de indicar por separado la cuantía correspondiente al precio neto del contrato y, en su caso, la cuantía correspondiente al IVA.
Eskaintza ekonomikoen balorazioa BEZa kontuan hartu gabe egingo da.	La valoración de las ofertas económicas se realizará sin tener en cuenta el IVA.
3.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA	3.2. VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO
Kontratuaren balio zenbatetsia 22.292,48 eurotan (BEZik gabe) finkatzen da, prozedura eta kontratazio-organoa zehazteko soilik.	El valor estimado del contrato se fija en 22.292,48 euros (sin IVA), a los únicos efectos de determinar el procedimiento y el órgano de contratación.
4.- FINANTZAKETA	**4.- FINANCIACIÓN**
Aurreikusi da kontratuaren ordainketa aurtengo aurrekontuaren kontura finantzatzea.	Para sufragar el precio del contrato hay prevista financiación con cargo al presupuesto del año en curso.
Europar Batasunaren Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoak partzialki finantzatua, Kontseiluaren 2020ko abenduaren 14ko 2020/2094 (EB) Erregelamenduak ezarria, zeinaren bidez	Financiado parcialmente por el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia de la Unión europea, establecido por el Reglamento (UE) 2020/2094 del Consejo, de 14 de diciembre de 2020, por el que se

Europar Batasunaren Berreskuratze Tresna bat ezartzen baita COVID-19aren krisiaren ondorengo Berreskuratzeari laguntzeko, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren arabera arautua, zeinaren bidez Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen baita.	establece un Instrumento de Recuperación de la Unión Europea para apoyar la Recuperación tras la crisis de la COVID-19, y regulado según Reglamento (UE) 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo de 12 de febrero de 2021 por el que se establece el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia.
%52a (14.026,43 € BEZ barne) Europako funtsekin (PRTR) eta %48a (12.947,47 € BEZ barne) funts propioekin finantzatu nahi dira.	Se pretende financiar el 52% (14.026,43 € con IVA) con fondo europeos (PRTR) y 48% (12.947,47 € con IVA) con fondos propios.
5.- NOLA ORDAINDU	5.- FORMA DE PAGO
Faktura bidez zerbitzu bukatzean.	Mediante factura al finalizar el servicio.
Kontratistak fakturan Europako Next Generation funtsen finantzaketari erreferentzia egin beharko dio, honako adierazpena txertatuz: “Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana. Europako Batasunak finantzatua – NextGenerationEU.”	El contratista deberá hacer referencia en la factura a la financiación por los fondos europeos Next Generation mediante la expresión “Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia. Financiado por la Unión Europea – NextGenerationEU.”
Aurkeztutako fakturen kontzeptuak nahikoa argiak izan beharko dira, eta zer jarduerari dagozkion zehaztuko dute, emandako zerbitzuak identifikatu ahal izateko. Horrez gain, kontzeptuan adierazi beharko da gastua zein deialditarako egozten den. Bai eta egiaztagiriaren zenbatekoa osorik edo zati batean dirulaguntzari egozten zaion ere. Bigarren kasuan, egotzitako ehunekoa adierazi beharko da.	Los conceptos de las facturas presentadas deberán ser suficientemente claros, y especificarán a qué actuación corresponden, para poder identificar los servicios prestados. Adicionalmente, en el concepto, se deberá especificar la convocatoria para la que se imputa el gasto y si el importe del justificante se imputa total o parcialmente a la subvención, indicando en el segundo caso el porcentaje correspondiente imputado.
Fakturan kontzeptu gisa sartu beharreko deialdiaren izena honakoa da: URAREN HIRI ZIKLOKO PERTE TED/934/2022 AGINDUA. Saneamendu Sistema Kudeatzeko Plan Integrala idaztea – NextGenerationEU.	El nombre de la convocatoria que se debe incluir en el concepto de la factura es: PERTE CICLO URBANO DEL AGUA ORDEN TED/934/2022. Redacción del Plan Integral de Gestión del Sistema de Saneamiento (PIGSS) – NextGenerationEU.
6.- PREZIOEN BERRIKUSPENA	6.- REVISIÓN DE PRECIOS
Kontratu honetan ez da prezioen berrikuspena aplikatuko, LCSPren 103. artikuluan ezarritakoaren arabera.	En el presente contrato no procederá la revisión de precios, según lo establecido en el artículo 103 de la LCSP.
7.- BERMEAK	7.- GARANTÍAS
Kontratuaren esleipendunak, hartutako betebeharrak betetzea bermatzeko, behin betiko berme bat eratu beharko du, esleipen-prezioaren %5aren baliokidea izango den zenbatekoan, BEZa kanpo utzita.	El adjudicatario del contrato, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas está obligado a constituir una garantía definitiva por la cuantía equivalente al 5% del precio de adjudicación excluido el IVA.
Bermea eratzeko epea esleipenaren jakinarazpenean zehaztuko dena izango da, eta SPKLren 108. artikuluan ezarritako edozein modutan formalizatu ahal izango da. Bermea elektronikoki egiaztatu ahal izango da. Baldintza hau lizitatzaileari	El plazo para la constitución de la citada garantía será el que se señale en la notificación de la adjudicación y podrá constituirse en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 108 de la LCSP La acreditación de su constitución podrá realizarse por

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betetzen ez bada, esleipena baliogabetzat joko da.

Berme osoaren edo, hala badagokio, zati baten itzulketa SPKLren 111. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da, berme-epea amaitu eta esleipendunak bere betebehar kontraktual guztiak bete ondoren.

8.- KONTRATUA GAUZATZEA

Zerbitzuaren gauzatzea kontratua formalizatzen den unetik hasiko da.

Kontratuaren gauzatzea Pasaiako Udalak izendatutako sail arduradunak gainbegiratuko du.

Kontratistak galdu-gordean jardun beharko du kontratua egikaritzean, eta ez du eskubiderik izango obretan sortutako galera, matxura edo kalteengatik kalte-ordainak jasotzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 239. artikuluan aurreikusitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Nolanahi ere, obrak ondorengo agiri eta legeetan jasotakoaren arabera gauzatuko dira: baldintza-agiri honetan ezarritako klausulak; agiriari erantsitako zehaztapen teknikoak; Sektore Publikoko Kontratuen Legea; eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Dekretuaren bidez onartua. Bereziki, kontratua Administrazioaren zuzendaritzapean, ikuskaritzapean eta kontrolpean egikarituko da; eta eskumen horiek idatziz nahiz ahoz erabiliko ditu Administrazioak. Ahoz eginez gero, idatziz berretsiko da gero lehenbailehen, aldeentzako loteslea izan dadin.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

SPKLren 62.1. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, kontratuaren arduradun izendatzen da Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanak Saileko arduraduna.

medios electrónicos. De no cumplirse este requisito por causas imputables al licitador, la adjudicación a su favor no surtirá efecto.

La devolución de la garantía, tanto total como parcial en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 111 de la LCSP, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por el adjudicatario todas sus obligaciones contractuales.

8. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

La ejecución del servicio comenzará con la formalización del contrato.

La ejecución del contrato se realizará bajo la supervisión del departamento responsable designado por el Ayuntamiento de Pasaia.

La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista y éste no tendrá derecho a indemnizaciones por causa de pérdidas, averías o perjuicios ocasionados en las obras, salvo en los casos de fuerza mayor previstos en el artículo 239 de la Ley de Contratos del Sector Público.

En todo caso, el servicio se realizará con estricta sujeción a las cláusulas estipuladas en el presente pliego, al proyecto de obras, a las especificaciones técnicas unidas al mismo, así como a lo establecido en Ley de Contratos del Sector Público y en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre. En especial, la ejecución del contrato se desarrollará bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente. En este último caso deberá ratificarse por escrito en el plazo más breve posible para que sea vinculante para las partes.

Cuando por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo.

De conformidad con lo previsto en el artículo 62.1. de la LCSP, se designa como responsable del contrato al Responsable del Departamento de

Servicios, Redes y Mantenimiento.

EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIAK:

8.1 HIZKUNTZA BALDINTZAK

1. Hizkuntza gaitasuna.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.8 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, Euskadiko toki-entitateek eta Euskadiko tokiko sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, batetik, herritarrei bermatzeko toki-erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan jaso ahal izatea kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak eta, bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeko. Hori horrela, Pasaiako horniduraren plan integrala idazteko proiektu taldeko proiektu arduradunak eta prestakuntza egokiko teknikariek Udalak berak bete behar dituen baldintza berak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez. Horregatik, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantzan xedatutakoarekin bat, proiektu taldeko kideek honako euskara maila hau izango dute:

• Koordinazio lanetarako Udalarekin harturemana duen solaskidearen egitekoak ahozkoak nahiz idatzizkoak direnez, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuari egokitutako C1 gaitasun mailaren pareko maila egiaztatu beharko du ahoz nahiz idatziz.

• Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

• Era berean, kontratuarekin hasi ondoren, pertsona horiek ordezkatzeko enpresak beste norbait izendatzen duen aldiro, izendatutakoak eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko du.

• Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko bidea hau izango da:

1. Zerbitzua eman behar duten pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna badutela ziurtatzen duen agiria aurkeztuko dute;

CONDICIONES ESPECIALES EJECUCIÓN:

8.1 CONDICIONES LINGÜÍSTICAS

1. Competencia lingüística.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 7.8 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, los contratos administrativos suscritos por las entidades locales y demás entidades que conforman el sector público local de Euskadi incluirán las cláusulas que sean precisas para garantizar a los ciudadanos y ciudadanas el derecho a recibir las actividades o los servicios en los que medie un contrato, en condiciones lingüísticas equivalentes a las que sean exigibles a aquellas, así como el cumplimiento de la regulación de la doble oficialidad lingüística del euskera y del castellano. De este modo, la persona responsable del proyecto y los/las técnicos/as de adecuada cualificación del equipo del proyecto de redacción del plan integral de abastecimiento municipal de Pasaia deben garantizar, en lo que a sus competencias lingüísticas se refiere, unas condiciones similares a las que de hecho se exijan al Ayuntamiento de Pasaia. Por ello, cumpliendo con lo dispuesto en la Ordenanza Municipal para la Normalización del Uso del Euskera, las personas del equipo de proyecto acreditarán el siguiente nivel de euskera:

• Considerando que las tareas de la persona interlocutora con el ayuntamiento de los trabajos de coordinación son tanto orales como escritos, deberá acreditar tanto oralmente como por escrito un nivel equivalente al nivel de competencia C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

• Previa adjudicación del contrato, la empresa deberá verificar que las personas encargadas de prestar el servicio poseen la competencia lingüística precisa.

• Asimismo, en caso de que, una vez iniciado el contrato, la empresa designe a otra persona para sustituir a dichos/as profesionales, la persona designada deberá acreditar la competencia lingüística requerida.

• La acreditación de la competencia lingüística se llevará a cabo de la siguiente manera:

1. Las personas que vayan a prestar el servicio presentarán un documento acreditativo de la competencia lingüística requerida;

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

2. Agiririk ezean, Administrazioak erabakitako proba egingo dute. Elkarrizketa egingo diete, eta idatzizko proba egiteko ere eska diezaiekete. Proba horren emaitzak ez du ondoriorik izango kontratu honen zerbitzutik kanpoko esparruetan.

2. Hizkuntza paisaia

Pasaiako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantzaren 8. artikuluan zehazten dira errotulaziorako nondik norakoak. Ildo beretik, Udal Ordenantzaren 8. artikulu hori indartu egiten du Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 16. 2 artikuluak, izan ere artikulu horren arabera bulegoetako eta beste azpiegitura batzuetako barneko eta kanpoko errotuluak hizkuntza ofizial bietan idatziko dira, edozein euskarritan. Behar izanez gero, hizkuntza gehiagotan ere agertuko dira, euskarari lehentasuna emanez; hala ere, errotulua euskara hutsez jarri ahal izango da honako kasu hauetan:

- Testuaren grafia euskaraz eta gaztelaniaz oso antzekoa denean.
- Euskarazko errotuluak nahasmenik sortzen ez duenean.
- Mezuarekin batera, piktograma bat ere badagoenean, esanahia argitzeko.

Publizitate kanpainetan bereziki zainduko da euskarazko leloak euskaraz sortuak izatea, eta ez izatea gaztelaniazko leloaren itzulpen hutsak. Halaxe jasota dago Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 33.3 artikuluan.

Oro har, publizitate kanpainari laguntzen dioten euskarri guztiak (informazio- eta dibulgazio-liburuxkak, kartelak eta oharrak), dauden euskarrietan daudela, bi hizkuntza ofizialetan

2. A falta de documentación, realizarán la prueba que determine la Administración. Realizará una entrevista, y se podrá solicitar la elaboración de un escrito. El resultado de dicha prueba no tendrá efectos en ámbitos ajenos a la prestación del presente contrato.

2. Paisaje lingüístico

El artículo 8 de la Ordenanza Municipal de Normalización del Uso del Euskera de Pasaia define los términos de la rotulación. En el mismo sentido, el artículo 16.2 del Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, de normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi refuerza el citado art. 8 de la Ordenanza municipal, ya que establece que los rótulos interiores y exteriores de las oficinas y otras instalaciones de las entidades locales se redactarán en ambas lenguas oficiales, cualquiera que sea su soporte. Si fuera necesario, también aparecerán en más idiomas, dando prioridad al euskera; no obstante, el rótulo podrá colocarse exclusivamente en euskera en los siguientes casos:

- Cuando la grafía del texto sea muy similar en euskera y castellano.
- Cuando el rótulo en euskera no dé lugar a confusión.
- Cuando el mensaje venga acompañado de un pictograma que haga inequívoca su comprensión.

En las campañas publicitarias, se velará especialmente para que los eslóganes en euskera hayan sido creados originalmente en dicha lengua, y no sean meras traducciones del eslogan en castellano. Así lo recoge el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, de normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las entidades locales de Euskadi, en su artículo 33.3.

Con carácter general, todos los soportes (folletos informativos y divulgativos, carteles y notas) que apoyen la campaña publicitaria, cualquiera que sea su formato, se redactarán en las dos lenguas

idatziko dira, euskarazkoari lehentasuna emanda. Nolanahi ere, euskaraz idatzi eta igorri ahal izango dira, haur, nerabe eta gazteei (0-18) zuzendutakoak direnean eta hartzaileen ezaugarriengatik (adina, hizkuntza gaitasuna, esparrua...) edo komunikazioen gaiengatik euskaraz egin litezkeenean, betiere, herritarren eskubideak bermatuta badaude.

3. Harremana herritarrekin

Udalak herritarrekin betetzekoak dituen hizkuntza-baldintza berak bete beharko ditu zerbitzuak erabiltzaileekin artatzen ari denean.

a) Ahozkoari dagokionez: Udalak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko lehen harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan, parte-hartze saioetan…) euskaraz izango du enplegatuak, eta ondoren, herritarrak aukeratutako hizkuntza ofizialean jarraituko du.

b) Idatzizkoari dagokionez: zerbitzuak sortzen dituen era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak, planak, komunikazio eta sentsibilizazio-ekintzak) euskaraz idatziko dira hartzaileak 0-18 urte artekoak direnean, euskaldunak direnean edo euren jarduera euskaraz gauzatzen dela jakina den kasuetan. Gainerakoetan euskaraz eta gaztelaniaz, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak.

4. Harremana administrazioarekin

Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntza araudiaren arabera jokatuko du kontratuaren xede diren jarduera guztietan. Kontratu honen bidez sortzen dituen dokumentu guztiak (datu-bilketaren emaitzak jasotzen dituen txostena, idatzizko edo ikus-entzunezko beste edozein dokumentu...) euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko dizkio Pasaiako Udalari, euskarazkoari lehentasuna emanda. Ahozko harremana Udaleko ordezkariekin euskaraz izango da.

8.2 GIZARTE-MOTAKO EDO ENPLEGUARI BURUZKO BALDINTZAK

Oro har, kontratuaren egikaritze baldintza berezi

ofiziales dando prioridad al euskera. De todas formas, podrán redactarse y emitirse en euskera, cuando se dirijan a niños, niñas, adolescentes y jóvenes (0-18): y cuando, por las características de las personas destinatarias (edad, capacitación lingüística, ámbito...) o por la temática de las comunicaciones, puedan realizarse en euskera, siempre que queden garantizados los derechos de la ciudadanía.

3. Relación con la ciudadanía

La atención a las personas usuarias se llevará a cabo en condiciones lingüísticas idénticas a las que de hecho se exijan a la administración.

a) Relaciones verbales: de conformidad con los criterios lingüísticos aprobados por el Ayuntamiento, el primer contacto oral con la ciudadanía (atención inicial, telefónica, contestadores, presencial, megafonía, reuniones, sesiones de participación…) será en euskera, y a continuación se utilizará la lengua oficial elegida por el/la ciudadano/a.

b) Relaciones escritas: las notificaciones y comunicaciones escritas por la empresa (impresos, notas, avisos, horarios, facturas, planes, acciones de comunicación y sensibilización) se realizarán en euskera cuando cuando las personas receptoras sean de 0 a 18 años, sean vascohablantes o se sepa que desempeñan sus funciones en euskera de forma habitual. En el resto de los casos, se desarrollarán en euskera y en castellano, dando prioridad al euskera.

El servicio deberá garantizar que en la prestación del servicio los textos utilizados en euskera son correctos y adecuados.

4. Relación con la administración

La empresa adjudicataria actuará de conformidad con el régimen lingüístico del Ayuntamiento en todos los cometidos objeto del contrato. Por ello, todas los documentos generados que correspondan a este contrato (informe con los resultados de la recogida de datos, cualquier otro documento escrito o audiovisual) y se presenten en el Ayuntamiento de Pasaia estarán redactados en euskera y castellano, dando prioridad al euskera. La relación verbal con los/las representantes del Ayuntamiento se desarrollará en euskera.

8.2 DE TIPO SOCIAL O RELATIVAS AL EMPLEO

Con carácter general, se establecen como

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

bezala ezartzen dira honako hauek: Gizarte Segurantzari eta Laneko segurtasunari eta higieneari buruzko legezko xedapenak betetzea eta, bereziki, hitzarmen kolektibo aplikagarria betetzea.	condiciones especiales de ejecución del contrato el cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo, y en particular el incumplimiento del convenio colectivo que resulte de aplicación.
Halaber, kontratuaren egikaritze baldintza berezi gisa ezartzen da kontratistak Ogasun Publikoarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea.	Asimismo, se establece como condición especial de ejecución del contrato el cumplimiento del contratista de sus obligaciones respecto a la Hacienda Pública y a la Seguridad Social.
Era berean, kontratuaren egikaritzean parte hartzen duten azpikontratista guztiek bete beharko dituzte kontratuan jasotako egikaritze baldintza berezi guztiak.	Todas las condiciones especiales de ejecución que formen parte del contrato serán exigidas igualmente a todos los subcontratistas que participen de la ejecución del mismo.
8.3. BERDINTASUNA	8.3. IGUALDAD
1. Kontratatutako pertsona edo entitate juridikoak arau hauetan jarritako betebeharrak bete behar ditu: 3/2007 Lege Organikoa, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena; 9/2017 Legea, kontratuena.Horretarako, honakoa eskatuko da: • 50 langiletik gorako enpresei Berdintasun Planaren erregistro-orria eta ordainsarien auditoria-erregistroa egina dutela egiaztatzea. (901/2020 Errege Dekretua, Berdintasun Planen erregistroari buruzkoa eta 902/2020 Errege Dekretua, emakume eta gizonen ordainsarien berdintasunari buruzkoa). • Berdintasun Plana oraindik erregistratuta ez duten aurreko paragrafoan aipatutako enpresen kasuetan, Berdintasun Plana aurkeztu beharko dute, ordainsarien diskriminazioa ekiditeko onartutako neurriak barne.	1. La persona o entidad jurídica contratada deberá cumplir las obligaciones establecidas en la Ley Orgánica 3/2007, de 16 de marzo, por la que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres y en la Ley 9/2017, de Contratos. Para ello se solicitará: • Comprobar que a las empresas de más de 50 personas trabajadoras se ha realizado la hoja de registro del Plan de Igualdad y el registro de auditoría retributiva. (Real Decreto 901/2020, de registro de planes de igualdad y Real Decreto 902/2020, de igualdad retributiva entre mujeres y hombres). • En los casos de empresas mencionadas en el párrafo anterior que no tengan aún registrado el Plan de Igualdad, deberán presentar el Plan de Igualdad, incluyendo las medidas aprobadas para evitar la discriminación retributiva.
2. Zerbitzua garatuko duten talde lizitatzaileko pertsona guztiek emakumeenganako eta gizonenganako jarrera errespetagarria eta berdinzalea edukiko dute une oro, eta inoiz ez dute izango jarrera desatsegin, mingarri edo diskriminatzailerik, sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo sexu-orientazioagatik	2. Todas las personas del equipo licitador que vayan a desarrollar el servicio mantendrán en todo momento una actitud respetuosa e igualitaria hacia mujeres y hombres, y en ningún caso mantendrán actitudes desagradables, ofensivas o discriminatorias por razón de sexo, ideología, origen étnico, nacionalidad u orientación sexual (artículo 14

(Konstituzioaren 14. artikulua).

3. Kontratatutako pertsonak edo entitate juridikoak dokumentazio, idazki, publizitate, irudi eta material guztietan komunikazioa modu ez-sexista eta barneratzailean erabiltzea.

•Baldintza hau betetzen dela bermatzeko, kontratuak iraun duen bitartean erabili den dokumentazio, publizitate, idatzi nahiz material grafikoen kopiak eskatuko dira (euskarri informatikoan).

4. Pertsona edo entitate lizitatzaileak gutxienez hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du kontratuaren iraunaldi guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera. Eta soldata ezin izango da inolaz ere jarritako soldata baino txikiagoa izan. Bestalde, soldata-bereizkerian arreta berezia ezarriko du, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari begira.

9.- KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK

Kontratistak indarrean dauden lege-xedapenak bete beharko ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzari dagokionez eta laneko segurtasun eta higieneari dagokionez, eta Udalak ez du inolako erantzukizunik izango betebehar horiek ez betetzeagatik.

Kontratistak kontratuaren exekuzio aldian aplikatu beharreko lan-hitzarmenean ezarritako arau eta baldintzak bete beharko ditu, eta, bereziki, kontratuaren exekuzio osoan zehar hitzarmen horretan jasotako soldata ordaindu beharko du.

Azpikontratazioen kasuan, kontratistak, orobat, zuritu beharko du, dagozkion datuak azpikontratutako enpresei eskatu eta gero, ezen enpresa horiek ere, obra gauzatzean, lan arloan eta gizarte segurantzaren arloan indarrean dauden xedapen horiek aplikatzen dituztela eta, zehazkiago, dagokion Hitzarmen Kolektiboak jasotzen dituen lan baldintzak eta lan segurtasuneko eta lan osasuneko betebehar guztiak aplikatzen dituztela.

Kontratistak egiaztatu beharko du kontratua gauzatzeko kontratatu dituen langileak gizarte segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela; era berean, kontratuko zerbitzu batzuk azpikontratatzen baditu, Udalari jakinaraziko dio, azpikontratatutako jarduera hasi aurretik, egiaztatu duela azpikontratatutako enpresa horien langileak gizarte segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela.

de la Constitución).

3. Hacer un uso no sexista e inclusivo de la comunicación en toda la documentación, escritos, publicidad, imágenes y materiales por parte de la persona o entidad jurídica contratada.

- Para garantizar el cumplimiento de esta condición, se solicitarán copias en soporte informático de toda la documentación, publicidad, escritos o materiales gráficos que se hayan utilizado durante la vigencia del contrato.

4. La persona o entidad licitadora deberá abonar durante toda la duración del contrato, como mínimo, el salario recogido en el convenio colectivo en función de la categoría profesional que corresponda al trabajador/a. Y el salario en ningún caso podrá ser inferior al salario fijado. Por otra parte, prestará especial atención a la discriminación salarial en aras de la igualdad entre mujeres y hombres.

9.- OBLIGACIONES LABORALES DEL CONTRATISTA

El contratista está obligado al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo, quedando el Ayuntamiento exonerado de responsabilidad por este incumplimiento.

La empresa contratista está obligada a cumplir durante todo el periodo de ejecución del contrato las normas y condiciones fijadas en el convenio colectivo de aplicación, debiendo en particular a lo largo de toda la ejecución del contrato el salario recogido en el convenio colectivo de aplicación.

En el caso de subcontratación, la empresa contratista, igualmente, deberá justificar, después de haber solicitado a las empresas subcontratadas los datos oportunos, que estas empresas también aplican en la ejecución del contrato las citadas disposiciones vigentes en materia laboral y de seguridad social, y más concretamente, las condiciones de trabajo del Convenio Colectivo que resulte de aplicación, así como las obligaciones en materia de seguridad y salud laboral.

El contratista deberá acreditar que los/las trabajadores/as que ocuparán para ejecutar los contratos están afiliados y dados de alta en la Seguridad Social, y notificar al Ayuntamiento cuando subcontraten parte de las prestaciones objeto del contrato, que han comprobado, con carácter previo al inicio de la actividad subcontratada, la afiliación y alta en la Seguridad

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

	Social de los trabajadores de las empresas con las que subcontraten.
Kontratistak Udalari aurkeztu beharko dizkio sinatutako lan-kontratu guztiak, haien iraupena edo lanaldi osoa edo partziala izatea alde batera utzita, bai eta Gizarte Segurantzako kotizazio-agiriak (RLC eta RNT) ere. Agiri horiek hiru hilean behin bidali beharko dira, hiruhileko naturala amaitu eta gehienez 90 eguneko epean, baina Udalak hala eskatuz gero, gehienez 5 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira.	El contratista deberá remitir al Ayuntamiento copia de todos los contratos laborales que realice, con independencia de su duración y de si la jornada a realizar por la persona contratada es completa o parcial, así como los correspondientes boletines de cotización (RLC y RNT) a la Seguridad Social. La comunicación de los citados boletines se realizará trimestralmente en el plazo máximo de 90 días desde la finalización de cada trimestre natural como mínimo, sin perjuicio de que la comunicación deba hacerse en el plazo máximo de 5 días hábiles desde que el Ayuntamiento así se lo requiera.
Halaber, kontratistak Udalari bidali beharko dizkio, hilero, langileen nominak ordaindu izanaren eta nominetan pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga atxiki izanaren egiaztagiriak.	Asimismo, la contratista deberá remitir al Ayuntamiento, con carácter mensual, justificantes de haber abonado las nóminas y practicado las retenciones del impuesto sobre la renta de las personas físicas en las nóminas de sus trabajadores.
Ez da inolako lan-loturarik izango kontratua egikaritzeko izendatzen diren langileen eta Udalaren artean; izan ere, langileak enpresa esleipendunaren zuzendaritza- eta antolakuntza-boterearen mende geratuko dira legez ezarritako arlo eta antolamendu guztietan eta, beraz, esleipenduna izango da kasuari ezargarriak zaizkion lege-xedapen guztiak betetzeko erantzule bakarra, bereziki, kontratazio, gizarte segurantza, lan-arriskuen prebentzio eta zerga arloetan; ondorioz, langile horiek ez dute inolako lotura juridikorik ez lan-loturarik izango Udalarekin; alde batera utzita Udalari legez edo kontratuaren arabera dagozkion kontrol- eta ikuskapen-ahalmenak.	No existirá vinculación laboral alguna entre el personal que se destine a la ejecución del contrato y el Ayuntamiento, por cuanto aquél queda expresamente sometido al poder direccional y de organización de la empresa adjudicataria en todo ámbito y orden legalmente establecido y siendo, por tanto, ésta la única responsable y obligada al cumplimiento de cuantas disposiciones legales resulten aplicables al caso, en especial en materia de contratación, Seguridad Social, prevención de riesgos laborales y tributaria, por cuanto dicho personal en ningún caso tendrá vinculación jurídico-laboral con el Ayuntamiento de, y ello con independencia de las facultades de control e Inspección que legal y/o contractualmente correspondan al mismo.
Halaber, kontratuaren klausula batean ezartzen da Udalak ez duela inolako kargarik bere gain hartu beharrik izango, kontratistak, lan, gizarte edo zerga arloetako betebeharren bat ez betetzearen ondorioz.	Asimismo, se establece una cláusula de indemnidad del Ayuntamiento frente a cualquier incumplimiento del contratista en materia laboral, social o tributaria.
Kontratistak subrogazioari lotutako langileei ordaindu gabeko soldaten eta Gizarte Segurantzari zor zaizkion kotizazioen erantzule izan beharko du, baita kontratua amaitu eta langile horiek kontratista berriak subrogatzen dituenean ere. Kasu horretan, Administrazioak, soldatak ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion	El contratista tendrá la obligación de responder de los salarios impagados de los trabajadores personal trabajador afectado afectados por subrogación, así como de las cotizaciones a la Seguridad Social devengadas, aún en el supuesto de que se resuelva el contrato y aquellos sean subrogados por el nuevo contratista, sin que en ningún caso dicha obligación

zenbatekoak atxikiko ditu, soldaten ordainketa bermatzeko, eta ez dio behin betiko bermea itzuliko, ordainketa hori behar bezala egin dela egiaztatu arte.	corresponda a este último. En este caso, la Administración, una vez acreditada la falta de pago de los citados salarios, procederá a la retención de las cantidades debidas al contratista para garantizar el pago de los citados salarios, y a la no devolución de la garantía definitiva en tanto no se acredite el abono de éstos.
10.- ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZEAN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK	**10.- RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA POR LOS DAÑOS CAUSADOS A TERCEROS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
Esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sortutako kalteak eta galerak bere gain hartzea, SPKLren 196. artikuluan zehaztutakoarekin bat etorriz.	El contratista será responsable de los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 196 de la LCSP.
Esleipendunak gutxienez 150.000 euroko erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu eta aurkeztu beharko du. Aseguru honek, kontratuaren betearazteak hirugarrengoengan sor dezakeen edozein kalterengatik erantzungo du, eta kontratista zerbitzua gauzatu bitartean edozein pertsonari, jabetzari edo zerbitzuri, bere ardurapeko langile, instalazio eta tresnek eragin diezaieketen kalte eta galeren erantzule izango da.	El adjudicatario deberá contratar y presentar un seguro de responsabilidad civil por un importe mínimo de 150.000 euros que responda de los daños causados a terceras personas, bienes o servicios derivados de la ejecución del contrato; asimismo será responsable de los daños y perjuicios ocasionados a terceras personas, bienes o servicios por el personal a su cargo, instalaciones o instrumentos.
11.- KONTRATUAREN ALDAKETAK	**11.- MODIFICACIONES DEL CONTRATO**
Kontratua aldatu ahal izango da SPKLren 205. artikuluan berariaz aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean.	El contrato podrá modificarse cuando concurran las circunstancias previstas expresamente en el art. 205 de la LCSP.
Aipatutako aldaketak nahitaez bete beharko ditu kontratistak, 206. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.	Las posibles modificaciones referidas anteriormente serán obligatorias para el contratista en los términos establecidos en el artículo 206.
12.- HARRERA ETA BERME-EPEA	**12.- RECEPCIÓN Y PLAZO DE GARANTÍA**
Kontratu honetako helburua den zerbitzua ematen bukatu eta gehienez ere hilabeteko epean kontratuaren harrera formala eta positiboa egingo da, eta horren akta egingo da.	En el plazo máximo de 1 mes desde la finalización de la prestación objeto del contrato se producirá el acto formal y positivo de recepción.
Berme-epea urtebetekoa izango da.	Se establece plazo de garantía de un año.
13.- ESLEIPENDUNARENTZAKO ZIGORRAK, KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK	**13.- PENALIDADES AL CONTRATISTA POR INCUMPLIMIENTO**
13.1 KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEAK EZ BETETZEA	13.1 INCUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO
Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak medio, azken epea betetzeko orduan berandutze-egoeran jarri bada, Administrazioak aukeran izan dezake, kasuaren arabera, edo	Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total, la Administración podrá optar, atendidas las circunstancias del caso,

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

kontratua suntsiaraztea, edo eguneko zigorrak ezartzea proportzio honetan: kontratuaren prezio osoan dagoen 1.000 euroko kopuru bakoitzeko 2 euro egunero, BEZ gabe.	por la resolución del contrato o por la imposición de las penalidades diarias en la proporción de 2 euros por cada 1.000 euros del precio del contrato, IVA excluido.
Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren (BEZ gabe) 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du, edo kontratua suntsiarazteko, edo, zigor berriak ezarrita, kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko.	Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5 por 100 del precio del contrato, IVA excluido, el órgano de contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.
Administrazioak aurreko ataletan adierazten diren ahalmen berberak izango ditu, kontratistak epe partzialak betetzen ez dituenean, edo horiek ez betetzeak epe osoa ez betetzea ekarriko duela ondorioztatzen denean.	La Administración tendrá las mismas facultades a que se refieren los apartados anteriores respecto al incumplimiento por parte del contratista de los plazos parciales, o cuando la demora en el cumplimiento de aquellos haga presumir razonablemente la imposibilidad de cumplir el plazo total.
13.2 PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA	13.2 INCUMPLIMIENTO DE LA EJECUCIÓN PARCIAL DE LAS PRESTACIONES
Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu, kasuaren arabera: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.	Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incumplido parcialmente la ejecución de las prestaciones definidas en el contrato, la Administración podrá optar, atendidas las circunstancias del caso, por su resolución o por la imposición de una penalidad equivalente al 10 por 100 del precio total del contrato.
13.3. KONTRATUAREN PRESTAZIOA GAIZKI BETETZEA, EDO KONTRATUAREN KONPROMISOAK EDO EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA	13.3. CUMPLIMIENTO DEFECTUOSO DE LA PRESTACIÓN OBJETO DEL CONTRATO O PARA EL SUPUESTO DE INCUMPLIMIENTO DE LOS COMPROMISOS O DE LAS CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO.
Zigor horiek ez-betetzearen larritasunarekiko proportzionalak izan beharko dute, eta haietako bakoitzaren zenbatekoak ezingo du kontratuko prezioaren 100eko 10 gainditu (BEZ gabe), eta horien kopuru osoak ezin du kontratuaren prezioaren ehuneko 50 gainditu.	Las penalidades deberán ser proporcionales a la gravedad del incumplimiento y las cuantías de cada una de ellas no podrán ser superiores al 10 por ciento del precio del contrato, IVA excluido, ni el total de las mismas superar el 50 por cien del precio del contrato.
Kontratua gauzatzean esleipendunak egiten dituen arau-hausteak oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke.	Las infracciones que cometa el la adjudicataria adjudicatario en la ejecución de los trabajos se calificarán como muy graves, graves y leves.
A) Arau-hauste **oso larriak** dira:	A) Tendrán consideración de infracciones **muy graves**:

➢ Ezarritako epeetan zerbitzua ematen ez hastea, edo zerbitzua etetea, ezinbesteak bultzatuta izan ezean. ➢ Zerbitzuak osorik edo sorta batean lagatzea, berrakuratzea edo besterentzea, Udalak berariaz baimentzen ez badu. ➢ Zerbitzua emateko edo gauzatzeko garaian arduragabekeriaz edo arauz kanpo aritzea. ➢ Deontologia profesionalak onartzen dituen etika- eta heziketa-arauen aurkako jokabideak izatea. ➢ Zerbitzuaren zaintzaz arduratzen den Zerbitzuko arduradunek emandako jarraibideak desobeditzea, lanaren garapenari dagokionez eta, oro har, zerbitzua arautzen duten arauei dagokienez. ➢ Kontratatutako langileek zerbitzuaren hartzaileekin istiluak izatea, bai tratu desegokia eman dietelako, bai zerbitzua emateko garaian ondo aritu ez direlako. ➢ Agiri honetan ezarritako baldintza edo betebeharrak ez betetzea, gerora hortik erator daitezkeen egintzak eragotzi gabe. ➢ Bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.	➢ El no iniciar la prestación del servicio en los plazos establecidos o la cesación en la prestación del mismo, salvo causas de fuerza mayor. ➢ La cesión, subarriendo o traspaso total o parcial de los servicios, sin autorización expresa del Ayuntamiento. ➢ La prestación o ejecución manifiestamente negligente o irregular de los trabajos. ➢ Comportamientos de los que se desprendan actuaciones contrarias a las normas éticas y educativas aceptadas por la deontología profesional. ➢ La desobediencia a las instrucciones de los responsables del Servicio encargado de la vigilancia de la prestación, relativas al desarrollo del trabajo y, en general, a las normas que regulan la prestación de los mismos. ➢ Los incidentes del personal contratado con los destinatarios del servicio y el ciudadano en general, tanto por trato incorrecto, como por deficiencia en la prestación del trabajo. ➢ El incumplimiento de cualquiera de las condiciones y obligaciones establecidas en estos Pliegos, sin perjuicio de las acciones posteriores que de ello se deriven. ➢ Reiteración de dos o más infracciones graves.
B) Arau-hauste **larriak** dira: ➢ Udalak esleipendunaren eskura utzitako bitarteko materialen eta azpiegituraren erabilera okerra egitea. ➢ Arau-hauste arinak behin eta berriro errepikatzea. ➢ Era batera edo bestera agiri hauetan ezarritako baldintzak kaltetzea eta zerbitzuari kalte larria sortzea.	B) Tendrán consideración de infracciones **graves**: ➢ La utilización incorrecta de los medios materiales e infraestructura puestos a disposición del adjudicatario por el Ayuntamiento. ➢ La reiteración en la comisión de faltas leves. ➢ Aquellas que de algún modo signifiquen detrimento en las condiciones establecidas en estos Pliegos, con perjuicio grave de la prestación del Servicio.
C) Arau-hauste **arinak** dira: ➢ Gainerako arau-hauste guztiak, era batera edo bestera agiri hauetan ezarritako baldintzak kaltetu eta zerbitzuari larria ez den kaltea sortzen diotenak.	C) Tendrán consideración de infracciones **leves**: ➢ Todas las demás no previstas anteriormente y que de algún modo signifiquen detrimento en las condiciones establecidas en estos Pliegos, con perjuicio no grave de la prestación del Servicio.
Kontratistari zehapen hauek ezar dakizkioke arau-hausteengatik: • Arau-hauste oso larriengatik: 600 eurotik hasi eta behin betiko bermera bitarteko isunak. • Arau-hauste larriengatik: 150 eurotik 600 eurora bitarteko isunak, gertakarien larritasunaren arabera. • Arau-hauste arinengatik: ohartarazpena	Las sanciones que se podrán imponer al contratista serán las siguientes: • Por la comisión de faltas muy graves: multas a partir de 600 euros, hasta el importe de la garantía definitiva. • Por la comisión de faltas graves: multas de más de 150 a 600 euros en función de la gravedad de los hechos. • Por la comisión de faltas leves: en todo

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

beti, eta 150 arteko isunak ere jar daitezke, gertakarien larritasunaren arabera.	caso apercibimiento, pudiendo imponerse multas de hasta 150 euros en función de la gravedad de los hechos.
Hala ere, arau-hauste oso larriak egiten direnean, Udalak bi aukera izango ditu: klausula honetan aurreikusitako zehapen horiek jarri, edo kontratua amaitzeko espedientea abiarazi.	No obstante, en caso de infracciones muy graves el Ayuntamiento podrá optar entre la imposición de estas sanciones, según lo previsto en esta cláusula, o el inicio del correspondiente expediente para la resolución del contrato.
14.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK	**14.- CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO**
Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. eta 245. artikuluetan ezarritakoak izango dira.	Constituyen causas de resolución las establecidas en el artículos 211 y 245 de la Ley de Contratos del Sector Público.
Nolanahi ere, kontratua kontratistak kontratua bete ez duelako suntsiarazten denean, bermea konfiskatuko zaio eta, gainera, eragindako kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio Udalari, behin betiko bermearen zenbatekotik gora. Nolanahi ere, kontratua suntsiarazteko erabakian, eratutako bermea galtzea, itzultzea edo ezereztea bidezkoa den edo ez adierazteko berariazko aipamena jaso beharko da.	En todo caso, cuando el contrato se resuelva por incumplimiento del contratista, le será incautada la garantía y deberá, además, indemnizar al Ayuntamiento los daños y perjuicios ocasionados en lo que exceda del importe de la garantía definitiva. En todo caso, el acuerdo de resolución contendrá pronunciamiento expreso acerca de la procedencia o no de la pérdida, devolución o cancelación de la garantía que se hubiese constituido.
15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK	**15. PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN**
Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna adieraztea, kontratuaren egikaritzearen ondorioz, e) kontratuari amaiera ematea, eta f) kontratua deuseztatzea eta horren ondorioak zehaztea; Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.	Corresponden a la Administración las prerrogativas de a) interpretar el contrato, b) resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, c) modificarlo por razones de interés público, e) declarar la responsabilidad imputable al contratista a raíz de la ejecución del contrato, e) suspender la ejecución del mismo, y f) acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en la LCSP, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
Halaber, kontratazio-organoak ahalmena du kontratuaren egikaritzean kontratistek garatutako jarduerak ikuskatzeko, SPKLk ezarritako eran eta jarritako mugen barruan.	Igualmente, el órgano de contratación ostenta las facultades de inspección de las actividades desarrolladas por los contratistas durante la ejecución del contrato, en los términos y con los límites establecidos en la LCSP

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA	**II.- PROCEDIMIENTO PARA CONTRATAR**

16.- ESLEITZEKO PROZEDURA Kontratu hau prozedura irekiaren bidez esleituko da, SPKLren 156. artikuluarekin bat etorriz, eta esleipen-irizpide gisa ondoren zehaztutakoak erabiliko dira: **BALORAZIO AUTOMATIKORAKO IRIZPIDEAK:** **A1. Prezioa: 90 puntu gehienez** Puntuaziorik handiena preziorik merkeenari emango zaio, eta gainerako eskaintzen puntuazioa lortzeko, biderkatu egingo da preziorik merkeenaren eta lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza, eta biderkatu egingo da irizpideari aplika dakizkiokeen puntuen guztizkoarekin. Hau da, Hau da: PL=(Ob/Ol)* 90 Non: PL:Lizitatzailearen puntuazioa Ob:Eskaintzarik baxuena Ol: Lizitatzailearen eskaintza Oharra: balorazioa BEZa kontuan hartu gabe egingo da. **A.2 Zerbitzuaren egikaritze-epearen murrizketa: hasta 10 puntos** Zerbitzuaren egikaritze-epearen aste bakoitzeko murrizketarengatik 2,5 puntu emango dira, gehinez 4 aste murriztu ahal izango da eta 10 puntu emango dira gehienez. SPKLren 147.2. artikuluan xedatutakoarekin bat, kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren, berdinketarik balego, honako gizarte-irizpideak aplikatuko dira hurrenkera honetan, eskaintzak aurkezteko epea bukatzen den uneari dagozkionak: a) Enpresa bakoitzaren plantillan ezintasuna duten edo gizarte-bazterkeria egoeran dauden langileen portzentaje handiena; berdinketarik balego, lehentasuna emango zaio plantillan ezintasuna duten langile finkoen kopuru handienari, edo plantillan lan-munduratzen ari den langile kopuru handienari. b) Enpresa bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen portzentaje txikiena. c) Enpresa bakoitzaren plantillan dagoen	**16.- PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN** La adjudicación del presente contrato se realizará por procedimiento abierto, de acuerdo con el artículo 156 de la LCSP, utilizándose como criterios de adjudicación, los que a continuación se concretan: **CRITERIOS DE VALORACIÓN AUTOMÁTICA** **A1. Precio: hasta 90 puntos** Se otorgará la máxima puntuación al precio más económico y la puntuación del resto de las ofertas se desprende de la fórmula de multiplicar el resultado del cociente entre el precio más bajo y la oferta del licitador que se valora por el número total de puntos aplicables al criterio. Esto es, Pl= (Ob/Ol) * 90 Donde: Pl: Puntuación licitador Ob: Oferta más baja Ol: Oferta licitador Nota: la valoración se realizará sin tener en cuenta el IVA. **A.2. Reducción del plazo de ejecución del servicio: hasta 10 puntos** Por cada semana de reducción en el plazo de ejecución del servicio se otorgarán 2,5 puntos, hasta un máximo de 4 semanas y 10 puntos. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 147.2 LCSP, el empate entre varias ofertas tras la aplicación de los criterios de adjudicación del contrato se resolverá mediante la aplicación por orden de los siguientes criterios sociales, referidos al momento de finalizar el plazo de presentación de ofertas: a) Mayor porcentaje de trabajadores/as con discapacidad o en situación de exclusión social en la plantilla de cada una de las empresas, primando en caso de igualdad, el mayor número de trabajadores fijos con discapacidad en plantilla, o el mayor número de personas trabajadoras en inclusión en la plantilla. b) Menor porcentaje de contratos temporales en la plantilla de cada una de las empresas. c) Mayor porcentaje de mujeres empleadas en

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

emakume portzentaje handiena. d) Aurreko irizpideak aplikatu ondoren, berdinketa izango balitz, zozketa egingo da.	la plantilla de cada una de las empresas. d) El sorteo, en caso de que la aplicación de los anteriores criterios no hubiera dado lugar a desempate.
Berdinketa desegiteko irizpide horiek ezartzeko ondorioetarako, lizitatzaileek alderdi horiek egiaztatuko dituzte dagozkion lan-kontratuekin eta Gizarte Segurantzaren kotizazio-agiriekin, eta adierazitako gizarte-irizpide horiek egiaztatzeko zuzenbidean onartzen diren bestelako agiriekin.	A efectos de aplicación de estos criterios de desempate, los licitadores deberán acreditarlos, en su caso, mediante los correspondientes contratos de trabajo y documentos de cotización a la Seguridad Social y cualquier otro documento admitido en derecho que acredite los criterios sociales anteriormente referidos.
Berdinketa desegiteko irizpideak egiaztatzeko agiriak berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko ditu lizitatzaileak, ez lehenago.	La documentación acreditativa de los criterios de desempate a que se refiere el presente apartado será aportada por los licitadores en el momento en que se produzca el empate, y no con carácter previo.
<u>EZOHIKO EDO NEURRIZ KANPOKO BALIOAK DAUZKATEN ESKAINTZAK:</u>	<u>OFERTAS CON VALORES ANORMALES O DESPROPORCIONADOS:</u>
Ezohiko edo neurriz kanpoko balioak dauzkaten eskaintzak soilik proposamen ekonomikoari dagokion irizpidearen arabera baloratuko dira.	Las ofertas con valores anormales o desproporcionados únicamente se apreciarán sobre el criterio de valoración de “Propuesta Económica”.
Hasiera batean, neurriz kanpokotzat edo ausartegitzat joko dira kasu hauetan dauden eskaintzak: 1. Lizitatzaile bakarra aurkezten denean, eta proposamena lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino 25 portzentaje-unitate txikiagoa denean. 2. Bi lizitatzaile aurkezten direnean, eta eskaintzarik txikiena bestea baino 20 portzentaje-unitate txikiagoa denean. 3. Hiru lizitatzaile aurkezten direnean, eta aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino 10 portzentaje txikiagoa denean eskaintza. Hala ere, batez bestekoa kalkulatzeko, eskaintzarik altueraren zenbatekoa ez da kontatuko, baldin eta batez bestekoa baino 10 unitate portzentual handiagoa bada. Nolanahi ere, neurrigabekotzat joko dira batez bestekoa baino 25 portzentaje-unitate beherago dauden eskaintzak. 4. Lau lizitatzaile edo gehiago aurkezten direnean, eta aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino 10 portzentaje-unitate baino gehiago jaisten direnean	Se considerarán, en principio, desproporcionadas o temerarias las ofertas que se encuentren en los siguientes supuestos: 1. Cuando, concurriendo un solo licitador, sea inferior al presupuesto base de licitación en más de 25 unidades porcentuales. 2. Cuando concurran dos licitadoras, la que sea inferior en más de 20 unidades porcentuales a la otra oferta. 3. Cuando concurran tres licitadoras, las que sean inferiores en más de 10 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. No obstante, se excluirá para el cómputo de dicha media la oferta de cuantía más elevada cuando sea superior en más de 10 unidades porcentuales a dicha media. En cualquier caso, se considerará desproporcionada la baja superior a 25 unidades porcentuales. 4. Cuando concurran cuatro o más empresas licitadoras, las que sean inferiores en más de 10 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. No

eskaintzak. Hala ere, eskaintzetako batek batez besteko hori baino 10 portzentaje-unitatetik gora baditu; beste batez besteko bat kalkulatuko da, aipatutako kasu horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik. Nolanahi ere, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, kopuru txikiena duten eskaintzen artean kalkulatuko da batez bestekoa.	obstante, si entre ellas existen ofertas que sean superiores a dicha media en más de 10 unidades porcentuales, se procederá al cálculo de una nueva media solo con las ofertas que no se encuentren en el supuesto indicado. En todo caso, si el número de las restantes ofertas es inferior a tres, la nueva media se calculará sobre las tres ofertas de menor cuantía.
17.- KONTRATAZIO-MAHAIA	**17.- MESA DE CONTRATACIÓN**
Kontratazio-mahaia honako kide hauek osatuko dute: Burua: • Iraitz Pazos Lapido / Mikel Garcia Peñil Kideak: • Aitziber Latasa Sorondo, udal idazkaria / Ordezkoa: Manex Etxeberria Egia • Gorka Lizarraga Erro, udal kontu-hartzailea / • José Mitxelena Zubizarreta, Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Saileko arduraduna / Ordezkoa: Amaia Oiarbide Urtxulutegi Mahaiko idazkaria: • Ion Mitxelena Lasa / Ordezkoa: Maitane Azpeitia Álvarez	La Mesa de Contratación la constituirán los siguientes miembros: Presidente: • Iraitz Pazos Lapido / Mikel Garcia Peñil Vocales: • Aitziber Latasa Sorondo, Secretaria municipal / Suplente: Manex Etxeberria Egia • Gorka Lizarraga Erro, Interventor municipal • José Mitxelena Zubizarreta, Responsable del Departamento de Servicios, Redes y Mantenimiento / Suplente: Amaia Oiarbide Urtxulutegi Secretario de la mesa: • Ion Mitxelena Lasa / Suplente: Maitane Azpeitia Álvarez
18.- KONTRATATZEKO GAITASUNA	**18.- CAPACIDAD PARA CONTRATAR**
Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren ekonomia- eta finantza-kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legean adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak agiri honen 21.5. klausulan ezarritakoak izango dira. Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkari baten bidez kontratatuz gero, askietsitako ahalordea erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordez bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena daukala egiaztatu beharko du dagozkion egiaztagirien bitartez. Esleipendunaren ordezkariak ere ezin izango du kontratatu, baldin eta lehen aipatutako debekuak badauzka.	Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en la LCSP. La solvencia se acreditará de acuerdo con los medios establecidos en la cláusula 21.5 de este pliego. Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. En caso de contratar por medio de algún representante, deberán utilizar un poder bastante otorgado específicamente a tal efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

Pertsona juridikoak kontratuen esleipendun izan daitezke, soilik kontratu horien prestazioak haiek berezkoak dituzten helburu, xede edo jarduera-eremuaren barruan badaude, haien estatutu edo sortze-arauen arabera.	Las personas jurídicas solo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto o ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios.
Enpresariek, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.	Los/as empresarios/as, además, deberán contar con habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de la actividad o prestación que constituya el objeto del contrato.
Aurreko ataletan adierazitako kontratatzeko gaitasun, kaudimen eta debekurik ezaren baldintzak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete behar dira, eta kontratua egiteko unean bere horretan iraun behar dute.	Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar a las que se refieren los apartados anteriores, deberán concurrir en la fecha final de presentación de ofertas y subsistir en el momento de perfección del contrato.
19.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEAK	**19.- LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE PROPUESTAS**
Proposamenak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Euskadiko Kontratazio Publikoaren kontratatzailearen profilera sartzeko, esteka hau erabili behar da http://www.contratacion.euskadi.eus	El plazo de presentación de proposiciones será de 15 días naturales desde el día siguiente de la publicación del anuncio en el perfil del contratante. El acceso al perfil de contratante de la Contratación Pública de Euskadi se efectuará a través del siguiente enlace http://www.contratacion.euskadi.eus
Pasaiako Udalaren eta haren erakunde autonomoen KONTRATUGILEAREN PROFILA Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Sisteman txertatuta badago ere, sistema horretarako sarbidea helbide honetatik ere egin ahal izango da: http://www.pasaia.eus/eu/kontratatzailearen-profila	Si bien el **PERFIL DEL CONTRATANTE** del Ayuntamiento de Pasaia y sus organismos autónomos se encuentra integrado en el Sistema de Contratación del Gobierno Vasco, el acceso a dicho sistema también podrá llevarse a cabo a través de la siguiente dirección: http://www.pasaia.eus/eu/kontratatzailearen-profila
Proposamenak soilik bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, agiri honen 20. klausulan ezarritako eran, Kontratatzailearen Profilean argitaratzen den iragarkian adierazitako epearen barruan.	**Las proposiciones se presentarán exclusivamente por medios electrónicos**, en la forma establecida en la clausula 20 del presente pliego, dentro del plazo señalado en el anuncio de licitación publicado en el Perfil del Contratante.
Baldintza-agiriak eta agiri osagarriak kontratatzailearen profilean izango dira eskuragarri.	Se podrán consultar en el perfil del contratante los pliegos y la documentación complementaria.
Baldintza-agiriei edo dokumentazio osagarriei buruzko informazio osagarria eskatzen badute lizitatzaileek, informazio hori emango zaie	La información adicional sobre los pliegos o sobre la documentación complementaria que, en su caso, soliciten los licitadores será facilitada en el plazo de

proposamenak aurkezteko ezarritako epea bukatu baino sei egun lehenago, baldin eta eskaera proposamenak aurkezteko epea bukatu baino hamabi egun lehenago egiten bada, gutxienez.	6 días antes de la fecha límite fijada para la recepción de proposiciones, siempre que la solicitud haya sido realizada al menos doce días antes del vencimiento del plazo de recepción de las proposiciones señalado anteriormente.
Proposamenak egiteko beharrezkoa bada lekura bertaratzea edo agiriari erantsitako dokumentazioa “in situ” kontsultatzea, eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko epeak luzatu egingo dira, eragindako interesdunek proposamenak prestatzeko nahikoa denbora izan dezaten.	Cuando las proposiciones solo puedan realizarse después de una visita sobre el terreno o previa consulta «in situ» de la documentación que se adjunte al pliego, los plazos mínimos para la presentación de las ofertas y solicitudes de participación se ampliarán de forma que todos los que interesados afectados puedan tener conocimiento de toda la información necesaria para preparar aquellas.
20.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA	**20.- FORMA DE PRESENTACIÓN DE LAS PROPUESTAS**
Prozeduran parte hartzeko eskatutako dokumentazioa eta dagozkion proposamenak artxibo edo gutun-azal elektronikoen barruan aurkeztuko dira; ezin dira paperean aurkeztu.	La documentación exigida para tomar parte en el procedimiento y las correspondientes proposiciones se presentará dentro de archivos o sobres electrónicos, sin que dicha presentación pueda hacerse en papel.
Eskaintzak aurkezteko **BITARTEKO ELEKTRONIKOAK BAKARRIK** erabiliko dira, honako aplikazio honen bidez: LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA; eta sistema hori hemen kokatuta dago: KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN PLATAFORMA CONTRATACIÓN PÚBLICA EN EUSKADI SISTEMA DE LICITACIÓN ELECTRÓNICA	La presentación de ofertas se realizará **UTILIZANDO EXCLUSIVAMENTE MEDIOS ELECTRÓNICOS** a través de la aplicación denominada SISTEMA DE LICITACIÓN ELECTRÓNICA ubicada en KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN PLATAFORMA CONTRATACIÓN PÚBLICA EN EUSKADI SISTEMA DE LICITACIÓN ELECTRÓNICA.
Proposamenak elektronikoki aurkezteko beharrezko informazioa eta zehaztapen teknikoak, zifratzea eta dataren baliozkotzea barne, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman jasota daude (www.Contratacion.euskadi.eus).	La información y especificaciones técnicas necesarias para la presentación electrónica de las proposiciones, incluido el cifrado y la validación de la fecha, se encuentran alojadas en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi (www.contratacion.euskadi.eus).
Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gertakariak konpontzeko zerbitzua: 945016298.	Servicio de soporte para resolver dudas o incidencias sobre licitación electrónica: 945016298.
Proposamenek ondorengo gutunak izango dituzte:	Los proposiciones constarán de los siguientes sobres:
I. A GUTUN-AZALA	I. SOBRE A
Aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioaren gutun-azalean lizitatzaileek honako agiri hauek sartuko dituzte: 1. Erantzukizunpeko adierazpena, SPKLren 140. artikuluan xedatutakoarekin bat; eredu honen arabera: Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB), urtarrilaren 5eko 2016/7 araudiaren bidez onartua. Adierazpena sinatuta aurkeztuko da, dagokion	Dentro del sobre de “Documentación acreditativa del cumplimiento de requisitos previos”, los licitadores deberán incluir: 1. Declaración responsable de conformidad con lo dispuesto en el artículo 140 LCSP, cuyo modelo consiste en el documento europeo único de contratación (DEUC), aprobado a través del Reglamento (UE) nº 2016/7, de 5 de enero, que deberá estar

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

identifikazioarekin.	firmada y con la correspondiente identificación.
Agiri hori helbide honetan beteko da: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es, eta kontratatzailearen profilean argitaratutako fitxategiaren bidez.	Su cumplimentación se realizará a través de la dirección https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es y el archivo publicado en el perfil del contratante.
Enpresariak beste enpresa batzuen kaudimena edo bitartekoak erabiltzen baditu, Legearen 75. artikuluarekin bat, beste enpresa horiek ere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, kasu horietarako beharrezko informazioa jasotzen duena, Europako kontratazio agiri bakarrarekin bat.	En los casos en que el empresario recurra a la solvencia y medios de otras empresas de conformidad con el artículo 75 de la Ley, cada una de ellas también deberá presentar una declaración responsable en la que figure la información pertinente para estos casos con arreglo al formulario normalizado del documento europeo único de contratación.
2. Hainbat enpresari aldi baterako enpresa-elkarte batean bilduta aurkezten badira, aldi baterako enpresa-elkartea osatzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, agiri honen I. eranskinean jasotzen den ereduaren arabera, SPKLren 69. artikuluaren 3. atalean eskatzen denarekin bat; eta elkarte horren iraupena, gutxienez, kontratua iraungi artekoa izango da.	2. Compromiso, en el caso de que varios empresarios concurran agrupados en una unión temporal, conforme al modelo que se recoge en el Anexo II del presente pliego, de constituir la unión temporal, de conformidad con lo exigido en el apartado 3 del artículo 69 LCSP, con una duración que será coincidente, al menos, con la del contrato hasta su extinción.
Konpromiso-idatzian honako datu hauek jasoko dira: elkartea osatzen dutenen izenak eta zirkunstantziak; horietako bakoitzaren parte-hartzea; eta kontratua esleitzen bazaie, formalki aldi baterako elkartea eratzeko konpromisoa. Agiri hori elkartea osatzen duten enpresa guztien ordezkariek sinatu beharko dute.	En el escrito de compromiso se indicarán: los nombres y circunstancias de los que la constituyan; la participación de cada uno de ellos, así como la asunción del compromiso de constituirse formalmente en unión temporal en caso de resultar adjudicatarios del contrato. El citado documento deberá estar firmado por los representantes de cada una de las empresas que componen la unión.
Aldi baterako enpresa-elkarte batek parte hartzen duen kasu guztietan, enpresa parte-hartzaile bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko du, dagokion informazioa Europako kontratazio-agiri bakarreko formularioan jasota.	En todos los supuestos en que varios empresarios concurran agrupados en una unión temporal, también se aportará una declaración responsable por cada empresa participante en la que figurará la información requerida en estos casos en el formulario del documento europeo único de contratación.
Erkidegotik kanpoko enpresak badira, SPKLren 68.1. artikuluan araututako txostena aurkeztu beharko dute. Halaber, kontratua Espainian gauzatzekoa bada, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzen direla jakinarazteko adierazpena, eta enpresari legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foruari	Si trata de operadores económicos no comunitarios, deben presentar el informe regulado en el art. 68.1 LCSP. Además, las empresas extranjeras deberán aportar una declaración de sometimiento a la jurisdicción de los juzgados y tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero

uko egiten diotela adierazteko, kasua hori balitz.	jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitante.
Kontratazio-organoak edo -mahaiak egiaztagiri guztiak edo batzuk aurkezteko eskatu ahal izango diete hautagaiei edo lizitatzaileei, baldin eta uste badute arrazoizko zalantzak daudela adierazpenaren indarrari edo fidagarritasunari buruz, prozedura ondo garatzeko beharrezkoa denean eta, nolanahi ere, kontratua esleitu aurretik.	El órgano o la mesa de contratación podrán pedir a los candidatos o licitadores que presenten la totalidad o una parte de los documentos justificativos, cuando consideren que existen dudas razonables sobre la vigencia o fiabilidad de la declaración, cuando resulte necesario para el buen desarrollo del procedimiento y, en todo caso, antes de adjudicar el contrato.
Hala ere, enpresaria Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo haren baliokide autonomikoan inskribatuta badago SPKLren 341. artikuluan aurreikusitako irismenarekin, edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazional batean agertzen bada, hala nola enpresaren espediente birtual batean, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema batean edo aurrez kualifikatzeko sistema batean, aipatutako dokumentu-organoek doan egiaztatu ezin dituzten dokumentuak aurkeztu beharko dira.	No obstante, cuando el empresario esté inscrito en el Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o su equivalente autonómico con el alcance previsto en el artículo 341 LCSP, o figure en una base de datos nacional de un Estado Miembro de la Unión Europea, como un expediente virtual de la empresa, un sistema de almacenamiento electrónico de documentos o un sistema de precalificación, y éstos sean accesibles de modo gratuito para los citados órganos, no estará obligado a presentar los documentos justificativos u otra prueba documental de los datos inscritos en los referidos lugares.
Esleipen-proposamena jasotzen duen lizitatzaileak, kontratua esleitu aurretik, kontratazio-organoaren aurrean 21.5 klausulan eskatutako dokumentuen jabetza eta baliozkotasuna egiaztatu beharko du. Beraz, ez da beharrezkoa klausula horretan eskatutako dokumentazioa aurkeztea proposamenak aurkeztean, nahikoa izango da Europako kontratazio-agiri bakarreko ereduaren arabera erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea.	El licitador a cuyo favor recaiga la propuesta de adjudicación, deberá acreditar ante el órgano de contratación, previamente a la adjudicación del contrato, la posesión y validez de los documentos exigidos en la cláusula 21.5. del presente pliego. No será por tanto necesario presentar la documentación exigida en la cláusula 21.5. del presente pliego en el momento de presentación de proposiciones, bastando la presentación de la declaración responsable que se adjunta como según el modelo del documento europeo único de contratación.
3. III. eranskina.- "JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK", lizitatzaileek jakinarazpen edo komunikazio elektroniko bat eskuragarri dagoela jakinarazteko helbide elektronikoa adieraz dezaten.	3. Anexo III .- "DATOS A EFECTOS DE NOTIFICACIONES Y COMUNICACIONES" del presente pliego a los efectos de que los licitadores indiquen la dirección de correo electrónico donde recibirán el correspondiente aviso de que se encuentra disponible una notificación o comunicación electrónica.
4. Lizitatzaileek, halaber, **XII. ERANSKINEKO** agiriak aurkeztu beharko dituzte, behar bezala beteta eta sinatuta. MRRri buruzko erantzukizunpeko adierazpenak, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.	4. Los licitadores deberán presentar así mismo la documentación rellanada y firmada del **ANEXO XII.** Declaraciones responsables relativas al MRR en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.
II. B GUTUN-AZALA	II. SOBRE B
"B" gutun-azala BALORAZIO AUTOMATIKORAKO IRIZPIDEEI buruzkoa izango da, eta honako	El sobre “B” se referirá a los CRITERIOS DE VALORACIÓN AUTOMÁTICA y contendrá los

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

dokumentu hauek izango ditu: Administrazio-klausula zehatzen agiri honen I. eranskina, behar bezala beteta.	siguientes documentos: Anexo I del presente pliego de cláusulas administrativas particulares debidamente cumplimentado.
21.- DOKUMENTAZIOA IREKITZEA ETA AZTERTZEA, ETA ENPRESEN HAUTAKETA	**21.- APERTURA Y TRATAMIENTO DE LA DOCUMENTACIÓN PRESENTADA Y SELECCIÓN DE EMPRESAS**
Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, honako jarduketak egingo dira:	Vencido el plazo de presentación de proposiciones se llevarán a cabo las siguientes actuaciones:
1. Honako agiri hauek egiaztatuko dira: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, Europako kontratazio agiri bakarraren ereduaren arabera (A gutun-azala); eta, agiri honen 20.A klausularen arabera, A gutun-azalean jaso beharreko gainerako dokumentazioa. (A GUTUN-AZALA: AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA).	1. COMPROBACIÓN DE LA DECLARACIÓN RESPONSABLE según modelo de documento europeo único de contratación DEUC (SOBRE A), así como del resto de la documentación que ha de integrar en su caso, y conforme a la cláusula 20 del presente pliego, el "SOBRE A" DE "DOCUMENTACIÓN ACREDITATIVA DEL CUMPLIMIENTO DE LOS REQUISITOS PREVIOS”
2. "B" GUTUN-AZALA PUBLIKOKI IREKITZEA.	2. APERTURA PUBLICA DEL SOBRE “B”.
“B” GUTUN AZALA jendaurrean irekiko da kontratatzailearen profilean adierazitako egun eta orduan.	Se llevará a cabo la apertura pública del sobre “B” el día y hora que se indique en el perfil de contratante.
Ekitaldi horretan, lizitatzaile bakoitzaren eskaintzan balio-iritzien arabera ebaluatutako irizpideei esleitutako puntuazioa jakinaraziko da.	En este acto se dará a conocer la valoración asignada a los criterios dependientes de un juicio de valor en cada oferta.
3. ESKAINTZEN SAILKAPENA	3. CLASIFICACIÓN DE LAS OFERTAS.
Irizpide guztiak baloratu ondoren, Mahaiak aurkeztutako proposamenak beheranzko hurrenkeran sailkatuko ditu eta kontratua esleitzeko proposamena egingo dio hura egin behar duen kontratazio-organoari.	Una vez valorados todos los criterios, la Mesa procederá a la clasificación de las proposiciones presentadas por orden decreciente y elevará la propuesta de adjudicación del contrato al órgano de contratación que haya de efectuar la misma.
5. ERREKERIMENDUA ESLEIPENA LORTZEN DUEN LIZITATZAILEARI.	4. REQUERIMIENTO AL LICITADOR A CUYO FAVOR RECAIGA LA PROPUESTA DE ADJUDICACIÓN
Aurreko jarduketa horiek egin ondoren, ESLEIPENA LORTZEN DUEN LIZITATZAILEARI eskatuko zaio, **hamar laneguneko epean**, eskaera jasotzen duenetik kontatzen hasita, ondorengo agiriak aurkez ditzan:	Realizadas las actuaciones anteriores se requerirá, al LICITADOR A CUYO FAVOR RECAIGA LA PROPUESTA DE ADJUDICACIÓN PARA QUE para que, dentro del plazo de **diez días hábiles**, a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento, presente la siguiente documentación:

a) Hautagaiaren edo horren ordezkariaren nortasuna egiaztatuko duen agiriaren fotokopia. Beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu: notario-ahalordea. Ahalorde hori erakunde honek askietsiko du, gutun-azal honetan aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzeko prozesuan.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa bada: eratze- edo aldaketa-eskritura (merkataritza-erregistroko idazpenaren araberakoa) eta identifikazio fiskaleko zenbakia; merkataritza-legeriak hala eskatzen duenean. Betekizun hori bete beharrekoa ez bada, jarduteko gaitasuna eratze-agiriaren edo eskrituraren bidez, estatutuen bidez edo sortze-egintzaren bidez egiaztatuko da, jarduera erregulatzeko arauak bertan jasota, eta, hala dagokionean, dagokion erregistro ofizialean izena emanda.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, dagokion erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie. edo, bestela, zinpeko aitorpena edo ziurtagiri bat aurkeztuko dute, aplikagarriak diren Europar Batasuneko xedapenak kontuan hartuta.

Atzerriko gainerako enpresaburuek jarduteko gaitasuna dutela egiaztatu beharko dute, Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostena erakutsita edo enpresako egoitzaren lurralde-esparruari dagokion Kontsuletxeko Bulegoaren txostena erakutsita.

c) Zinpeko berariazko aitorpena, SPKLren 71. atalean kontratatzeko zehaztutako debekurik ez daukala agertuz.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2019 Legearen 71.1.d artikuluarekin bat etorriz, ezin izango dira kontratatu zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituztenak.

Hala, Pasaiako Udalak Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoaren (NISAE) bidez honako hauek egiaztatzeko informazioa kontsultatu edo bildu ahal izango du:

1. Gipuzkoako Foru Aldundia.- Zerga-betebeharrak egunean izatea.

a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad del participante o su representante. Además en el caso de que se actúe en representación de otra persona o entidad, poder notarial, el cual será bastanteado por esta entidad en el proceso de calificación de la documentación aportada en este sobre.

b) Cuando el licitador sea una persona jurídica, escritura de constitución o modificación, en su caso, debidamente inscrita en el Registro Mercantil y número de identificación fiscal, cuando la inscripción fuera exigible conforme a la legislación mercantil que le sea aplicable. Si no lo fuere, la acreditación de la capacidad de obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución estatutos o acto fundacional, en el que constaren las normas por las que se regula su actividad, inscritos, en su caso, en el correspondiente Registro oficial.

Cuando se trate de empresarios/as no españoles de Estados miembros de la Unión Europea, deberán acreditar su inscripción en el registro procedente de acuerdo con la legislación del Estado donde estén establecidos o mediante la presentación de una declaración jurada o un certificado, de acuerdo con las disposiciones comunitarias de aplicación.

Los demás empresarios extranjeros deberán acreditar su capacidad de obrar con informe de la Misión Diplomática Permanente de España en el Estado correspondiente o de la Oficina Consular en cuyo ámbito territorial radique el domicilio de la empresa.

c) Declaración expresa responsable de no estar incurso en ninguna de las prohibiciones de contratar enumeradas en el artículo 71 de la LCSP.

De conformidad con el artículo 71.1.d de la Ley 9/2019, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, no podrán contratarse quienesno se hallen al corriente de sus obligaciones tributarias o con la Seguridad Social.

Así, el Ayuntamiento de Pasaia podrá consultar o recabar información para comprobar a través del Nodo de Interoperabilidad y Seguridad de las Administraciones de Euskadi (NISAE):

1. Diputación Foral de Gipuzkoa - Estar al corriente en el pago de las obligaciones

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

2. Bizkaiko Foru Aldundia - Zerga-betebeharrak ordainduta izatea. 3. Arabako Foru Aldundia – Zerga-betebeharrak ordainduta izatea. 4. Nafarroako Foru Ogasuna - zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta. 5. Estatuko Administrazio Orokorra (EAO) Zerga Administrazioko Estatu Agentzia (ZAEA) - Zerga-betebeharrak ordainduta izatea.	tributarias. 2. Diputación Foral de Bizkaia - Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias. 3. Diputación Foral de Araba - Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias. 4. Administración general de Estado (AGE) Agencia Estatal de Administración Tributaria (AEAT) - Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias. 5. Tesoreria General de la Seguridad Social - Estar al corriente en las obligaciones de pago a la Seguridad Social.
d) Honako hau egiaztatu behar da: jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dagoela, kontratuaren gaiari dagokion atalean; horretarako, alta agiria aurkeztuko du, ekitaldi honi badagokio, edo bestela, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren azkeneko ordainagiria aurkeztuko du; batarekin zein bestearekin batera, aipatu zergan baja eman ez duela ziurtatzen duen erantzukizun-aitorpena aurkeztu behar du.	d) Acreditación de estar dado de alta en el IAE, en el epígrafe que corresponda al objeto del contrato, mediante la presentación del alta, si se refiere al ejercicio corriente, o del último recibo del IAE, en los demás casos, acompañada en ambos supuestos de una declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del referido impuesto.
e) Lizitatzailearen ekonomia- eta finantza-kaudimenaren eta kaudimen tekniko edo profesionalaren frogagiriak: 1. Enpresariaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa honako bide hauetakoren batez egiaztatu ahal izango da: I. Urteko negozio-bolumena edo kontratuari dagokion eremuko urteko negozio-bolumena, azken hiru urteetan amaitutakoen artean negozio-bolumen handiena duen urteari dagokionez, gutxienez 20.000 eurokoa (BEZ barne) izan beharko da. Lizitatzailearen edo hautagaiaren urteko bolumena urteko kontuen bidez egiaztatuko da; urteko kontu horiek onartuta egongo dira eta Merkataritza Erregistroan jasota egongo dira, enpresaria erregistro horretan izena emanda badago, bestela, dagokion erregistro ofizialean jasota egongo dira. Merkataritza Erregistroan izena	e) Justificantes de la solvencia económica, financiera y técnica o profesional del licitador: 1. La solvencia económica y financiera del empresario podrá acreditarse por alguno de los siguientes medios: I. Volumen anual de negocios, o volumen anual de negocios en el ámbito al que se refiera el contrato que referido al año de mayor volumen de negocio de los tres últimos concluidos deberá ser al menos de 20.000 euros (IVA incluido). El volumen anual de negocios del licitador o candidato se acreditará por medio de sus cuentas anuales aprobadas y depositadas en el Registro Mercantil, si el empresario estuviera inscrito en dicho registro, y en caso contrario por las depositadas en el registro oficial en que deba estar inscrito. Los empresarios individuales no inscritos en el Registro Mercantil acreditarán

emanda ez dauden enpresariek euren urteko negozio-bolumena egiaztatuko dute inbentario-liburuen eta urteko kontuen bidez, eta horiek Merkataritza Erregistroak legeztatutakoak izango dira. II. Ondare garbia, edo aktiboen eta pasiboen arteko ratioa, azken kontu ekonomikoen itxiera-datan, gutxienez 20.000 eurokoa (BEZ barne) izan beharko da. izanik.	su volumen anual de negocios mediante sus libros de inventarios y cuentas anuales legalizados por el Registro Mercantil. II. Patrimonio neto, o bien ratio entre activos y pasivos, al cierre del último ejercicio económico para el que esté vencida la obligación de aprobación de cuentas anuales por importe igual o superior a 20.000 euros (IVA incluido).
2. Enpresariaren kaudimen teknikoa edo profesionala honako bide hauen bidez egiaztatu beharko da, eta hurrengo baldintza guztiak bete beharko dira:	2. La solvencia técnica o profesional del empresario deberá acreditarse por los siguientes medios, siendo necesario acreditar todos los medios que a continuación se señalan:
I. Azken hiru urteetan egindako lanen zerrenda aurkeztuta egiaztatuko da, kontratuaren xedearen mota edo izaera bereko lanen esperientzia izatea. Gutxieneko baldintza izango da azken bost urteetan gutxienez antzeko lan bat burutu izana eta balioa, guztira, gutxienez 20.000 eurokoa izatea (BEZ barne). Egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatzeko, dagokion administrazioko eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.	I. Experiencia en trabajos del mismo tipo o naturaleza similar al que corresponde el objeto del contrato, que se acreditará mediante relación de los trabajos efectuados por el interesado en los últimos tres años. El requisito mínimo será haber realizado al menos 1 trabajo similar en los últimos cinco años, y con un valor total mínimo de 20.000 (IVA incluido) euros. La acreditación de los servicios o trabajos efectuados se realizará mediante certificados expedidos o visados por el órgano competente de la administración en cuestión.
II. Giza baliabide hauek jarri behar dituzte kontratua gauzatzeko: a) Deskribatutako lanei erantzuteko behar adina kualifikazio eta arduraldi egokiko teknikarik osatuko dute proiektu-taldea, baldintza-agiri honetan dokumentatutako neurriaren arabera. Talde hori arduratuko da kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak diren prozesu eta lan guztiak egiteaz. b) Proiektu-arduradunak goi-mailako ingeniari titulua, ingeniaritza zibileko gradua, industria-ingeniaritzako titulua edo baliokidea	II. Los medios humanos que deberán poner a disposición del contrato será el siguiente: a) El Equipo de Proyecto estará conformado por cuantos/as técnicos/as de adecuada cualificación y nivel de dedicación sean necesarios/as para atender los trabajos descritos según el dimensionamiento que se documenta en este Pliego. Este Equipo será el responsable de la realización de todos los procesos y trabajos necesarios para la ejecución del presente contrato. b) La persona Responsable de Proyecto deberá deberá disponer de la Titulación de Ingeniero Superior, grado en

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
PASAIAKO UDALA

izan beharko du. Era berean, gutxienez lau (4) urteko esperientzia izan beharko du 17.000 biztanleko herri edo populazio-multzoetarako edateko uraren hornidura-sareak sektorizatzeko lanen proiektuen zuzendaritzetan eta/edo obra-zuzendaritzetan.	ingeniería Civil, ingeniería industrial o titulación equivalente. Asimismo, deberá contar con, al menos, cuatro (4) años de experiencia en direcciones de proyectos y/o direcciones de obra en trabajos de sectorización en las redes de abastecimiento de agua potable para poblaciones o conjuntos de poblaciones de, al menos, 17.000 habitantes.
Landa-brigadetako kide guztiek behar den prestakuntza izan beharko dute agindutako lanei lotutako lan-arriskuen arloan.	Todos los integrantes de las brigadas de campo deberán disponer de la formación necesaria en materia de riesgos laborales inherentes a los trabajos encomendados.
f) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-elkartea eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera.	f) En el caso de que varias empresas acudan a la licitación constituyendo una Unión Temporal de Empresas, cada una de las que la componen deberá acreditar su capacidad y su solvencia conforme a lo establecido en los puntos anteriores.
